



NEXT GENERATION FUNTSEN DIRULAGUNTZEN PROGRAMEN TRAMITAZIOEN BILAKAERA (2023-12-31)

2022ko abenduaren 12an, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren ondorioz, SURPOSAk ,birgaitze-bulego eta entitate laguntzaile gisa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio kontseilariaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduan agertzen diren dirulaguntzak kudeatzeko lana hartu zuen. Agindu honetan, energia-efizientzia sustatzeko, bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzen programei buruzko dirulaguntzen deialdi publikoen oinarriak zehazten eta arautzen dira. Programa hauek, urriaren 5eko, 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude, non Europar Batasunak finantziatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4., eta 5. programak arautzen baitira.

Aipatutako lankidetzeta-hitzarmena indarrean jartzearen ondorioz onartutako eginkizunak eta konpromisuak direla eta -batez ere, eskakizunak tramitatzera eta txostenak aztertzeko eginkizunetara zuzenduta daude, 2023ko Next Generation Funtsei buruzko dirulaguntzen ordainketak eta ebazpen proposamenak barne-, SURPOSAk, hasierako ebazpenera arte, hurrengo espedienteak tramitatu ditu (jarraian aipatutako eragin ekonomikoarekin).

3 PROGRAMA - ERAIKINETARA BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZAK					
Onartuak		Ez onartuak		Jarduketaren	Aitortutako
Espedienteak	Etxebizitzak	Espedienteak	Etxebizitzak	Zenbatekoa (€)	Dirulaguntzak (€)
14	162	6	190	5.268.997	1.970.200
4 PROGRAMA - ETXEBIZITZETARA BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZAK					
Onartuak		Ez onartuak		Jarduketaren	Aitortutako
Espedienteak	Etxebizitzak	Espedienteak	Etxebizitzak	Zenbatekoa (€)	Dirulaguntzak (€)
56	56	5	5	416.968	138.155
5 PROGRAMA - BIRGAITZE PROIEKTURA EDO/ETA ERAIKINAREN LIBURURA BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZAK					
Onartuak		Ez onartuak		Jarduketaren	Aitortutako
Espedienteak	Etxebizitzak	Espedienteak	Etxebizitzak	Zenbatekoa (€)	Dirulaguntzak (€)
2	36	0	0	4.540	3.400